



BILKURA-EGUNKARIA

DIARIO DE SESIONES

XII. legealdia
2026-09-04
Donostia

Legislatura XII
04-09-2026
Donostia-San Sebastián

ZAINKETA ETA GIZARTE
POLITIKETAKO
BATZORDEA

COMISIÓN DE CUIDADOS Y
POLÍTICAS SOCIALES

26/09 bilera-zenbakia

Sesión número 26/09

Hasiera/Comienzo : 12:36
Bukaera/Termina : 12:50

Bertaratutakoak/Asistentes:

Joxemari Carrere Zabala	EH Bildu	LEHENDAKARIA-PRESIDENTE
Zorione Etxezarraga Ortuondo	EA-NV	LEHENDAKARIORDEA-VICEPRESIDENTA
Iñaki Ruiz Alonso	ES-SV	IDAZKARIA-SECRETARIO
Jon Altolagirre Askasibar	EH Bildu	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Eider Illarramendi Azkue	EH Bildu	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Estitxu Elduaen Uranga	EH Bildu	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Oskar Bordes Altube - Eñaut Gracia Ibarra ordezkatzen	EH Bildu	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Andrea Arriola Ferrer - Eric Gálvez Álvarez ordezkatzen	EA-NV	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Juan Luis Silanes Aguirre - Amaia Etxeberria Etxeberria ordezkatzen	EA-NV	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Xabier Otxoa Muñoz - Anton Elozegi Villanueva ordezkatzen	EA-NV	BATZORDEKIDEA-VOCAL
M ^a Jesús Egido Moreno - Rosa Maiza Garrido ordezkatzen	ES-SV	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Mikel Lezama Zubeldia	TP-GP	BATZORDEKIDEA-VOCAL
Mariví Eizaguirre Ballesteros - Miren Echeveste Lacombe ordezkatzen	TM_ELK-GIP-GM_ELK-GIP	BATZORDEKIDEA-VOCAL

Legelariak – Letradas/os

Iñigo Balerdi Lizarralde LEGELARIA-LETRADO

GAI-ZERRENDIA

1. 26/06, 26/07 eta 26/08 zenbakietako aktak onestea, hala badagokio
2. Eskaera, Zainketa eta Gizarte Politiketako Batzordeko Lehendakartzari zuzendua, Amalan Gipuzkoa elkarrearen agerraldia antola dezan, Euskal Herria Bildu batzarkide-taldeko Estitxu Elduairen andreak aurkeztua (4453SE) (12/C/10/0001786)
3. Eskaera, Zainketa eta Gizarte Politiketako Batzordeko Lehendakartzari zuzendua, Gipuzkoako Gizarte Langintza Elkargo Ofizialeko ordezkarien agerraldia antola dezan, Euskal Herria Bildu batzarkide-taldeko Estitxu Elduairen andreak aurkeztua (4607SE) (12/C/10/0001850)
4. Irizpidea ematea, bidezkoa bada, ondorengo ekimena betetzearen inguruan: 15/2026 Ebazpena, Gipuzkoako zainketa zerbitzu publikoen erabiltzaileen eta euren senideen partaidetza hobetzeari buruzkoa (4450SE) (12/C/34/0001536)
5. Irizpidea ematea, bidezkoa bada, ondorengo ekimena betetzearen inguruan: 18/2026 Ebazpena, Gipuzkoako Diputazioa lurraldeko adinekoen egoitzetako lan-hitzarmenaren negoziaketan inplikatzeari buruzkoa (4517SE) (12/C/34/0001625)

ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación, si procede, de las actas número 26/06, 26/07 y 26/08
2. Petición dirigida a la Presidencia de la Comisión de Cuidados y Políticas Sociales, para que organice la comparecencia de la asociación Amalan Gipuzkoa, presentada por Dña. Estitxu Elduairen del Grupo Juntero Euskal Herria Bildu (R.E.4453) (12/C/10/0001786)
3. Petición dirigida a la Presidencia de la Comisión de Cuidados y Políticas Sociales, para que organice la comparecencia de representantes del Colegio Oficial de Trabajo Social de Gipuzkoa, presentada por Dña. Estitxu Elduairen del Grupo Juntero Euskal Herria Bildu (R.E.4607) (12/C/10/0001850)
4. Emisión de criterio, si procede, en relación con el cumplimiento de la Resolución 15/2026 sobre mejorar la participación de las personas usuarias de los servicios públicos de cuidados de Gipuzkoa y de sus familiares (R.E.4450) (12/C/34/0001536)
5. Emisión de criterio, si procede, en relación con el cumplimiento de la Resolución 18/2026, para implicar a la Diputación de Gipuzkoa en la negociación del convenio laboral de las residencias de personas mayores del territorio (R.E.4517) (12/C/34/0001625)

LEHENDAKARIA: Egun on.

Kurtso honetako lehenengo batzordea inauguratzen dugu, Zainketa eta Gizarte Politiketako Batzordearen kurtso honetako lehenengo bilera.

Ordezkapenen berri emango dut lehenengo, mordoa: Euskal Sozialistak taldetik, Maiza Garrido-ren ordezkari Egidio batzarkidea dator; Anton Elosegiren ordezkari Arriola batzarkidea, Amaia Etxeberriaren ordezkari Otxoa batzarkidea, Eric Gálvezen ordezkari Silanes batzarkidea, hauek Eusko Abertzaleak taldetik; eta Euskal Herria Bildu taldetik, Eñaut Graciaren ordezkari Oskar Bordes batzarkidea dator.

Eta Eusko Abertzaleak taldetik, bozeramailea Zorione Etxezarraga batzarkidea izango da, eta badator.

Itxoingo dugu minutu bat, Elkarrekin Gipuzkoa taldekoa badator, eta ja aurreratzen dizuet, Miren Echevesteren ordezkari Eizaguirre andrea etorriko da.

Orduan, esan bezala, Elkarrekin Gipuzkoa Talde Mistoaren aldetik, Miren Echevesteren ordezkari Mariví Eizaguirre batzarkidea dator.

Eta hasiko gara, lehenengo puntua.

1. 26/06, 26/07 ETA 26/08 ZENBAKIETAKO AKTAK ONESTEA, HALA BADAGOKIO**1. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS NÚMERO 26/06, 26/07 Y 26/08**

LEHENDAKARIA: Daude hiru, 26/06, 26/07 eta 26/08 zenbakietako aktak, ados? Edo norbaitek zerbait... Orduan, onartzen dira.

2. ESKAERA, ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEKO LEHENDAKARITZARI ZUZENDUA, AMALAN GIPUZKOA ELKARTEAREN AGERRALDIA ANTOLA DEZAN, EUSKAL HERRIA BILDU BATZARKIDE-TALDEKO ESTITXU ELDUAIEN**2. PETICIÓN DIRIGIDA A LA PRESIDENCIA DE LA COMISIÓN DE CUIDADOS Y POLÍTICAS SOCIALES, PARA QUE ORGANICE LA COMPARECENCIA DE LA ASOCIACIÓN AMALAN GIPUZKOA, PRESENTADA POR DÑA. ESTITXU ELDUAIEN DEL GRUPO JUNTERO**

ANDREAK AURKEZTUA (4453SE)
(12/C/10/0001786)

3. ESKAERA, ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEKO LEHENDAKARITZARI ZUZENDUA, GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZA ELKARGO OFIZIALEKO ORDEZKARIEN AGERRALDIA ANTOLA DEZAN, EUSKAL HERRIA BILDU BATZARKIDE-TALDEKO ESTITXU ELDUAIEN ANDREAK AURKEZTUA (4607SE) (12/C/10/0001850)

LEHENDAKARIA: Badakizue 2. eta 3. puntuak agerraldiak egiteko eskaerak direla, egingo dugu, nola talde berak aurkeztu dituen, azalpen bakar batekin puntuak, eta gero bozkatuko dugu banan-banan, ondo iruditzen bazaizue.

Orduan, Euskal Herria Bilduk aurkeztu ditu bi puntuak, eta, Elduaieen batzarkidea, zurea da hitza.

ELDUAIEN URANGA, ESTITXU: Mila esker, mahaiburu jauna, eta egun on denoi.

Bi elkarteren agerraldi eskaera bat egitea proposatu dugu hemen. Batetik, Gipuzkoako Amalan elkartearen agerraldia egitea proposatu dugu. Amalan mendekotasun handia duten haurren guraso eta tutoreen elkarteak, eta hauek egunerokotasunean dituzten zailtasunak, eta, batez ere, gizarte politike-tan, gizarte sarean, dituzten onurak eta ikusten dituzten gabeziak inguruan beraieen ikuspegia azaltzea egokia iruditzen zaigu, kolektibo zaurgarri bat izanda, beraieen egoera hobetzeko egin daitezkeen kontuak ezagutzeko eta proposamenak lantzeko.

Eta, bestetik, eskatu dugu, bueno, proposatu dugu Gipuzkoako Gizarte Langintza Elkargo Ofizialaren agerraldia, ba, hain justu, elkargo hone-tako kideak gurekin harremanetan jarri ziren, baina baita Foru Aldundiarekin ere, badakigu beraiek esanda, ikusten dutelako edo egunerokotasunean bizi dutelako Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sarean ba-daudelaarazo batzuk, eta horien berri eman nahi di-gute, hauek ere onbideratzeko gure esku egon daite-keen guztia egiteko, guri iruditzen zaigu entzutea

EUSKAL HERRIA BILDU (R.E.4453)
(12/C/10/0001786)

3. PETICIÓN DIRIGIDA A LA PRESIDENCIA DE LA COMISIÓN DE CUIDADOS Y POLÍTICAS SOCIALES, PARA QUE ORGANICE LA COMPARECENCIA DE REPRESENTANTES DEL COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA, PRESENTADA POR DÑA. ESTITXU ELDUAIEN DEL GRUPO JUNTERO EUSKAL HERRIA BILDU (R.E.4607) (12/C/10/0001850)

egokia litzatekeela, jakiteko non dauden gabeziak, eta horren ondoren hobetzeko politikak lantzeko.

Beraz, bi elkarte hauen agerraldiak egitea proposatzen dugu batzorde honetan.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Eta orain hasiko gara... Elkarrekin Gipuzkoa Talde Mistotik, Eizaguirre batzarkidea, zurea da hitza.

EIZAGUIRRE BALLESTEROS, MARIVÍ: Mila esker, mahaiburu jauna.

Agradeceros a todos la paciencia, y gure partetik ados gaude.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Talde Popularraren aldetik, Lezama jauna.

LEZAMA ZUBELDIA, MIKEL: Egun on denoi.

Eta gure partetik perfekto, ados.

LEHENDAKARIA: Eta Euskal Sozialistak taldetik, Ruiz batzarkidea.

RUIZ ALONSO, IÑAKI: Eguerdi on guztioi. Baita ere, kaixo guztioi ja oporrak eta gero.

Aldeko bozkak emango ditugu bi agerraldi eskaerei. Beraz, hori izango da gure bozka.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Eta Eusko Abertzaleak taldetik, Etxezarraga batzarkidea.

ETXEZARRAGA ORTUONDO, ZORIONE: Kaixo eta egun on guztioi.

Gure taldea beti prest agerraldira etorri nahi duena entzuteko. Beraz, aldeko bozka.

LEHENDAKARIA: Orduan, onespenez onartuko ditugu bi agerraldiak, bai Amalan Gipuzkoa elkartearen agerraldia, eta, baita, Gipuzkoako Gizarte Langintza Elkargo Ofizialeko ordezkaritza.

Orduan, antolatuko ditugu. Ja aurreratzen dizuet, hilaren 11n, goizeko bederatzietan, izango da Elkargoaren agerraldia, ezin baitzuten beste egun batean, eta beste orduetan. Lehenago ezin zuten, horregatik.

Eta orain 4. eta 5. gaiak.

4. IRIZPIDEA EMATEA, BIDEZKOA BADA, ONDORENGO EKIMENA BETETZEAREN INGURUAN: 15/2026 EBAZPENA, GIPUZKOAKO ZAINKETA ZERBITZU PUBLIKOEN ERABILTZAILEEN ETA EUREN SENIDEEN PARTAIDETZA HOBETZEARI BURUZKOA (4450SE) (12/C/34/0001536)

5. IRIZPIDEA EMATEA, BIDEZKOA BADA, ONDORENGO EKIMENA BETETZEAREN INGURUAN: 18/2026 EBAZPENA, GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA LURRALDEKO ADINEKOEN EGOITZETAKO LAN-HITZARMENAREN NEGOZIAKETAN INPLIKATZEARI BURUZKOA (4517SE) (12/C/34/0001625)

LEHENDAKARIA: Dira irizpide emateak, eta, ohi bezala, egingo dugu lehenengo hitza pasa, irizpideak eman, eta gero bozketa egingo dugu biena.

Eta, ohi bezala, Elkarrekin Gipuzkoa Talde Mistoa, Eizaguirre batzarkidea.

EIZAGUIRRE BALLESTEROS, MARIVÍ: Mila esker, mahaiburu jauna, berriro.

Respecto a las emisiones de criterio vamos a votar en contra. La Diputación no ha mejorado la participación de los usuarios en los servicios sociales, y tampoco se ha implicado lo suficiente en la negociación del convenio sectorial.

4. EMISIÓN DE CRITERIO, SI PROCEDE, EN RELACIÓN CON EL CUMPLIMIENTO DE LA RESOLUCIÓN 15/2026 SOBRE MEJORAR LA PARTICIPACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS DE CUIDADOS DE GIPUZKOA Y DE SUS FAMILIARES (R.E.4450) (12/C/34/0001536)

5. EMISIÓN DE CRITERIO, SI PROCEDE, EN RELACIÓN CON EL CUMPLIMIENTO DE LA RESOLUCIÓN 18/2026, PARA IMPLICAR A LA DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA EN LA NEGOCIACIÓN DEL CONVENIO LABORAL DE LAS RESIDENCIAS DE PERSONAS MAYORES DEL TERRITORIO (R.E.4517) (12/C/34/0001625)

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Eta Talde Popularraren aldetik, Lezama batzarkidea.

LEZAMA ZUBELDIA, MIKEL: Eskerrik asko.

Con respecto a la primera resolución o emisión de criterio, la primera resolución votaremos en contra. Llevamos muchos años escuchando exactamente lo mismo, sin ningún tipo de cambio a la respuesta que nos han dado en esta emisión de criterio con respecto a la participación de las personas usuarias de los servicios públicos de cuidados de Gipuzkoa. Por lo tanto, no podemos más que votar en contra, no se ha avanzado en nada.

Y respecto a la segunda votaremos a favor, porque, bueno, ya hemos tenido aquí también comparencias, y ya sabemos incluso a nivel jurídico hasta qué punto puede y no puede involucrarse la Diputación. Y sí que consideramos que dentro de la legalidad a lo mejor se podría hacer un poco más, pero que sí que se está involucrando, que al final es lo que se le pedía. Se puede pedir a lo mejor más, no digo que no, pero lo que se le pedía sí lo está cumpliendo.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Euskal Sozialistak taldetik, Ruiz batzarkidea.

RUIZ ALONSO, IÑAKI: Gureak aldeko bozka izango dira bi irizpen ematean. Eta batzuk ja esan dute, justu, egiten ari dela Gipuzkoako Foru Aldundia. Orduan, gure irizpidea baiezkoa izango da.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Eta Eusko Abertzaleak taldea, Etxezarraga andrea.

ETXEZARRAGA ORTUONDO, ZORIONE: Eskerrik asko, mahaiburu jauna.

Bi irizpideak batera egiten ari zarete orduan? Ederki.

Lehenengoari dagokionez, hau da, nik daukadan 15/2026 Ebazpenari dagokionez, egia da egi-

ten den eskaera, hau da, zerbitzu publikoen erabil-tzaileen eta euren senideen partaidetza hobetzeari buruzkoa, ez da hain ebidentea gauzatzea. Orduan, guri iruditzen zaigu Foru Aldundiari epe bat eman behar zaiola, hainbat egoitza daudelako, eta, gure taldearen iritzia da hau, eman behar zaiola ezaugarri desberdinak dituzten egoitza horiei eta funtziona-mendu anitza daukaten egoitza horiei, bateratze eta irizpideak guztiontzat antzekoak edo ahalik eta an-tzekoenak izan daitezen. Bestela, alderaketak egiten dira, eta batzuetan ematen zaie senide eta egoiliarrei aukera bat eta bestean ez. Orduan, uztartze hori oso konplexua da.

Eta guk ikusten dugu Foru Aldundiak eman digun erantzunean ari direla, eta eskatu nahi zaizkion emaitza horiek berehalakoak ezin direla izan. Or-duan, gure taldearen iritziz, Foru Aldundia betetzen ari da eskatzen ari zaion horrekin. Bukatu ez baino betetzen ari da. Orduan, gure taldearen aldetik baiez-koa izango da.

Eta bigarrenari dagokionez ere, 18/26 Ebaz-penak, hor, klaro, Foru Aldundia zuzenean legea be-tetzen ari da, eta ulertzen dugu Foru Aldundiari es-katzen zaion sustatze lan hori egiten ari dela. Uler-tzen dugu, baita ere, hainbat ikuspegitik, eragile po-litiko eta langile eta eragile sozialetatik irizpideak desberdinak direla, baina, gure aburuz, bitartekoak jartzen ari dira hori izan behar duen bezala eta hitzar-men hori erdiesteko helburuarekin. Beraz, guk ere, oraingoan ere, Foru Aldundiak ematen duen eran-tzun horri baiezkoa emango diogu.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Eta orain Euskal Herria Bildu taldetik, Elduaien batzar-kidea.

ELDUAIEN URANGA, ESTITXU: Mila esker, mahaiburu jauna.

Gure kasuan bietan kontra bozkatuko dugu, iruditzen zaigulako bietan ebazpenak jasotzen duena ez duela betetzen Foru Aldundiak.

Eta lehenengo kasuan, 15/2026 Ebazpenaren kasuan, nabarmena aurreneko puntua da, eta denok gogoratuko gara. Hau aho batez onartu genuen, eta zailtasun handiena izan zuen puntua zen Foru Aldundiari eskatzea eta, bide batez, Foru Aldundiak babes-ten duzuen alderdiok ere eskatzen zenieten, eta, beraz, berak ere onartu zuen zuek ebazpen-proposamen honetan adostasunera sartzeko, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren barruan zainketen kontseilu sektorial espezifiko bat sortzea, eta ez du egin. Eta horretarako ez da behar egoitza bakoitzaren erritmoa eta abar.

Hau Aldundiak berak bakarrik egin dezake, Kontseiluaren barruan, aipatu bezala, kontseilu sektorial espezifiko bat sortzea. Beraz, hori da egin ez duena, hori da ebazpen honetan lortu genuen adostasuneko puntu garrantzitsua, hau da Gipuzkoako Egoitzetako Senideen Elkartek nahi zuena eta ospatu zuena, eta hori ez du egin. Beraz, garbi dago, gure ustez hori ez duela bete ebazpen-proposamen honek esaten duena.

Eta, bestetik, 18/2026 Ebazpenaren betetze-ari dagokionez, iruditzen zaigu ez duela bete. Hitzez hitz irakurriko dizuet lehenengo puntuak jasotzen duena, jartzen du: «adinekoen egoitzetan larrialdeko eguneko zentroen sektoreko lan hitzarmena berri-tzeko negoziazioen inplikatzeko beharrezkoak diren bitartekaritza bilera guztiak eginda». Eta ikasturtea amaitzeaz zegoela entzun genituen hemen mahaian zeuden sindikatu guztietako ordezkariak esanez bilera bakarra egin zutela. Eta hori ez da behar diren guztiak egitea, hain justu, orain eta ia urte eta gehi-ago iristera doanean adostasunik lortu ez denean. Be-harrezkoak diren guztiak ez dira egin, hori iruditzen zaigu guri, eta horregatik bozkatuko dugu kontra.

LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Eta orain bozketara pasako gara.

Laugarren puntua izango da. Irizpide ematea ondorengo ekimena betetzearen inguruan: 15/2026 Ebazpena, Gipuzkoako zainketa zerbitzu publikoen erabiltzaileen eta euren senideen partaidetza hobetzeari buruzkoa. Aldeko bozkak? (...) Kontrakoak? (...) Orduan, aldeko sei eta kontrako zazpi bozka.

Orduan, ez da onartzen edo kontrako irizpidea ematen da.

Eta bostgarren puntua, irizpide ematea ondorengo ekimena betetzearen inguruan: 18/2026 Ebazpena, Gipuzkoako Diputazioa Lurraldeko adinekoen egoitzetako lan hitzarmenaren negoziazioetan inplikazioari buruzkoa. Aldeko bozkak? (...) Kontrakoak? (...) Zazpi aldeko eta sei kontrako.

Beraz, onartzen da aldeko irizpidea.

Eta honekin amaitzen dugu, eta beste bat arte, aprobetxatu eguna eta asteburua. Agur.